

## **MOZIOA, FORU ALDUNDIARI ESKATZEKO AUTOBUS ZERBITZUA INDARTU DEZALA**

Astigarragako EH Bilduko udaltaldeak ondoko mozio proposamena aurkezten du, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzeko autobus zerbitzua indartu dezala.

Astigarragan, 2026ko martxoaren 18an

Xabier Urdangarin Lasa  
Astigarragako EH Bilduko udaltaldea

## **MOZIOA, FORU ALDUNDIARI ESKATZEKO AUTOBUS ZERBITZUA INDARTU DEZALA**

Astigarragak hiri arteko autobus zerbitzuarekin duen egoera txarra eta dituen gabezia larriak ez dira berriak. Tamalez, konponbide egoki eta iraunkorrik gabe egin ditugu urte asko. Azken hilabeteotan jaso ditugun berri batzuk onak dira, baina ikuskizun dago arazoak modu iraunorrean behin betiko konpondko ote diren. Horrela izatea nahi genuke.

### **Astigarragaren hazkundera**

Biztanle kopuruaren hazkundera oso handia izan da Astigarragan azken 20 urteotan. Biztanle kopurua bikoiztu egin da. Une honetan, 7.944 biztanle gara, 8.000 biztanleko langa aurten gaindituko dugu. 2001etik 2025era biztanleria %122 hazi da. 2015etik 2025era %40 hazi da.

Haur adierazlea, oso-oso altua, 15 urtetik beherako biztanleria, biztanleria osoaren %20, oso tasa altua da. Zahartze adierazlea, oso baxua, 65 urte edo gehiagoko biztanleria %13 da.

Jaiotze tasari dagokionez, Euskal Herriko altuenetakoa dugu, altuena ez bada. Gipuzkoako jaiotze tasa mila biztanleko 7 ingurukoa izan da azken hamarkadan. Astigarragakoa horren bikoitza izaten ari da urtero, azken hamar urteotan, mila biztanleko 13, 15, 17...

Jaiotze tasa Astigarragan 2024an %11,4 izan da, Gipuzkoakoa %6.

# ehbildu

Biztanleria gaztea dugu. 12 urtetik aurrera Astigarragako gazte guztiek kanpora joan behar dute ikastera: derrigorrezko bigarren hezkuntza, erdi eta goi zikloak, batxilergoa, unibertsitatea... Une honetan, gaur bertan, 12 eta 22 urte arteko 700 gazte astigartar inguruko herrietara joan dira eskolara, gehienak Donostiara.

Garraio publikoaren aldetik, oso eskaintza kaskarra dugu, Lurraldebusen bi linea, Hernani eta Donostiako erdigunearekin lotzen gaituztenak. Beste linea bat Errenteria eta Garberarekin lotzen gaituena, duela urtebete inguru jarri zutena.

## **Autobus zerbitzuaren gabeziak**

Hona hemen autobus zerbitzuaren gabeziak laburbilduta:

1. Jendea geltokian geratzen da urtean zehar askotan. Adibidez, azken asteotan: Donostiatik Astigarragarako noranzkoan otsailaren 20 eta 27an, 14:00 aldera, Astigarragatik Donostiarako noranzkoan otsailaren 23an lehen orduan, martxoaren 4an (herenegun) 17:00 eta 18:00 aldera. Horrelako arazoak sarri gertatzen dira, bai lanegun arruntetan, bai asteburuetan eta jaiegun edo jai-ospakizun esanguratsuak daudenean. Jendea geltokian geratzen da autobusera igo ezinik lanera edo eskolara doala. Ez dakigu herritarrek geltokian geratzen direnean datu hori (data, ordua, geltokia, geltokian geratutako pertsona kopurua) Lurraldebusen erregistratzen ote duen, baina ezinbesekoa iruditzen zaigu datu hori zerbitzuaren gabezia horiek konponbidean jartzeko.

2. Herria asko hazi da eta autobus zerbitzua ez. Emakida berriaren aurretik zerbitzu hobea zuen Astigarragak. Datu argigarri bat: lehengo A1 eta A2aren espedizio edo bidaia kopuruak eta oraingo BU12 eta BU13arenak kopuruz ia berberak dira, baina bitartean 2015etik 2025era biztanleria %40 hazi da.

3. Geltokiak murriztu egin direla emakida berriarekin. Herri barruko 4 geltoki ezeztatu ziren; guztira 8 zeuden. Geltokiak gaur Astigarragako betiko auzoetatik urrunago daude. Honek eragin handia du adineko pertsonengan. Betiko auzo horietako herritarren adina batezbeste altua da. Geltokiak kenduta zerbitzua okertu egin da, zerbitzuaren kapilaritatea okerragoa da.

4. Arazo handienak gertatzen dira Astigarragako azken geltokian, Donostiarako noranzkoan. Geltoki hori da betiko Astigarragako eremuko jendearen geltokia. Barruko geltokiak kendu ondoren, hori da duten geoltokia. Etxetik eta auzotik urrunago. Azken geltokia denez, ohikoa da geltoki horretara autobusa gainezka etortzea. Eta jende asko dabilenean lekurik gabe geratzeko arrisku handiena duen geltokia horixe da. Geltoki hori da arazo hori gehien pairatzen duena. Geltoki hori erabiltzen duten pertsonen adina altua da eta bereziki emakumeak dira.

# ehbildu

5. Ziurtasunik ez eta kalitate txarra. Herritar asko azken geltokitik aurreko geltokira joaten da, lekua ziurtatzeko. Edo bi geltoki lehenago dagoenera. 600 metro lehenago dagoen geltokira, edota 850 metro lehenago dagoenera. Haur txikien sillitekin dabilzanak, erotu beharrean ibiltzen dira herriko lehen geltokira joanez, lekua izateko. Astigarragak du Gipuzkoako jaiotze tasa altuena (%11-15 artekoa), nabarmen, azken bi hamarkadotan (Gipuzkoako tasaren bikoitza; Gipuzkoakoa %6 da).

6. BU13 bereziki linea egokia denez Donostiako erdigunera joateko, hernaniarren linea horren erabilpena ikaragarri igo da. Martxoaren 3ko foru diputatu Azahara Dominguez andrearen hitzak dira: *Azahara Domínguez diputatuak gogorarazi duenez, Lurraldebusen 7,2 milioi erabiltzailerekin itxi zuen 2025. urtea Buruntzaldean, eta horrek esan nahi du ia % 10eko hazkundea izan zuela aurreko urtearekin alderatuta. Gainera, BU13 linea (Hernani >Astigarraga >Donostia) izan zen erabiliena, 1,1 milioi bidaiarekin (+%9,53). Ondorioz, linea horretako autobusak oro har gainezka iristen dira Astigarragara, aipatu ditugun ondorioekin:*

- ordutegiak ez betetzea ohikoa da
- lekurik gabe geratzeko arriskuak ezinegonara eragiten du, eta geltokiz mugitzea
- lekurik gabe geratzea dakar
- kalitate txarreko bidaiak dira: zutik, beti zutik, errepideko biribilguneetan zutik egoteko zailtasunak... Huskeria iruditu arren honek eragin nabarmena du adineko pertsonengan, orekari eusteko zailtasunak izan ditzaketan pertsonengan.

Honek guztiak sortzen du kalitate txarreko zerbitzua.

## Astigarragako Udalak egindako urratsak

Hona hemen azken bost urteotan Udalak egin dituen urratsak, norberak ondorioak atera ditzan.

Urrats eta data hauen aurretik Astigarragako Udalak eta herritarrek hainbat urrats egin genituen (idatziak eta mozioak Aldundiari, sinadura bilketa, agerraldiak Batzar Nagusietan eta abar), 2019az geroztik.

**2022-02-15ean**, Donostiako Udalak eta Astigarragako Udalak idatzia aurkeztu genion Aldundiari, dBuseko linea batzuk luzatzeko aukera aztertzeari buruzko iritzia eskatuz eta gaia lantzeko prestutasunaz galdera eginez. Aldundiaren aldetik, erantzun garbirik ez.

**2024-02-29** proposamena idatziz aurkeztu zuen Udalak, BU12 eta BU13 indartzeko eta ospitaleetara eta unibertsitateetara joateko dBuse-en 35. linea luzatzea aztertzeko, Donostiako Udalarekin landuta. Aldundiaren aldetik, erantzunik ez.

# ehbildu

**2024-05-23an** bilera, Astigarragako Udaletxean, Mugikortasuneko Foru Diputatuak eta Astigarragako alkateak. Bilera horretan otsailean aurkeztutako proposamena ahoz azaldu zuen Udalak. Aldundiaren aldetik erabaki eta konpromisorik ez. Aztertzekotan geratu ziren.

**2024-06-20an**, Astigarragako alkateak idatzia Aldundiari, otsailean aurkeztutako proposamenari bruzko erantzun bat eskatuz. Erantzunik ez.

**2024ko irailean**, Aldundiak Udalari galdera tekniko batzuk egin zizkion, otsaileko idatziari buruzkoak. Udalak berehala erantzun zituen. Gainerakoan, Aldundiak erantzun eta erabakirik ez Udalaren proposamenari buruz. BU12 eta BU13an errefortzu batzuk jarri zituzten.

**2024ko azaroa eta abenduan**, bilera Aldundiaren egoitzan (eta mezuak eta bestelako harremanak), Mugikortasuneko Foru Diputatuak eta Hernaniko eta Astigarragako alkateak. Aldundiak proposamena egin zuen, BU12 eta BU13aren arazoak kopontzeko autobus artikulatuak jarriko zirela esanez. Proposamen hori oraindik ez da gauzatu. Baina bestelako neurri iraunkorrik ere ez da ziurtatu.

**2025-05-26an** bilera Foru Aldundiko garraio-zuzendariarekin. Astigarragako Udalak ospitaleetako eta unibertsitateetako linearen gaia aztertzeko bilera egiteko hainbat eskari egin ostean, bilera egin zuten garraio-zuzendariak eta Astigarragako alkateak. Bilera horretan Udalak eskatu zuen Donostiako eta Astigarragako Udalekin batera Aldundiak lantalde bat sortzea gaia sakon aztertzeko. Aldundiaren erantzuna izan zen beste alternatiba batzuk ere aztertuko zituztela, besteak beste indarrean dauden lineen maiztasuna murriztea horrekin ospitale eta unibertsitateko linea probatzeko.

**2025-09-30ean Osoko Bilkurak mozioa** onartu zuen, maiatzeko bileraz geroztik berririk jaso gabe zegoelako, eskatuz, Astigarraga zuzenean ospitaleekin eta unibertsitateekin lotuko duen autobus zerbitzua beranduenez 2026an martxan jartzeko, dBusen 35. linea luzatuz edota Lurraldebsuen linea berri bat jarritz, betiere indarrean dauden Astigarragako lineetan inolako murrizketarik egin gabe; dBus autobus konpainiaren 35. linea Astigarragara luzatu ahal izateko beharrezkoak diren azterketa juridiko, administratibo eta ekonomiko guztiak bideratzeko eta, horretarako, Donostiako Udala, Astigarragako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia bilduko dituen lan-mahaia deitzeko 2025. urtea amaitu aurretik (udalak bere prestutasuna agertzen du zerbitzu horren finantzaketan parte hartzeko); BU13 zerbitzua indartzeko, maiztasuna astean zehar 15 minutukoa izatera pasaz eta asteburuetan 20 minutukoa; zerbitzu gehigarri horiek ahal den neurrian Astigarragatik, Oialumetik bertatik, abiatzea; eta BU13 linean autobus artikulatuak eskaintzea, batik bat ordu konplikatuenetan.

# ehbildu

**2025eko abenduan**, telefono eta email bidezko harremana Garraio Zuzendaritzarekin eta bilera foru diputatuarekin eta garraio zuzendariarekin. Bilera hori egin genuen Aldundiak iragarri zuelako linea berria jarzteko asmoa Astigarragatik ospitaleetara. Udalak bilera hori eskatu zuen bereziki jakiteko horretarako beste lineak murriztuko ote ziren ala ez. Linearen ezaugarri oso orokorrak azaldu zituen Aldundiak bilera horretan, aurrekontu proiektua onartzearen mende zegoela adieraziz eta epe zehatzik jarri gabe.

**2026ko otsailaren 20an**, Aldundiko Garraio Zuzendaritzarekin bilera izan zuen Udalak. Bilera horretan Aldundiak linea berriaren ezaugarriak azaldu zituen, ahoz (Udalak ez du informazioa idatziz jaso), ehituz bilera hori ez zela ezer negoziatzeko, baizik eta udalari linea berriaren informazioa emateko.

**2026ko otsailaren 23an**, herritarrekin eta Mugitu plataformarekin bilera irekia. Plataformaren gonbidapenari erantzunez, udal gobernuko bi ordezkari (EH Bilduko udaltaldekoak) bilerara bertaratu ziren (beste udaltaldeetako kiderik ez zen joan, nahiz eta gonbidapena jaso). Bertan, azken hilabeteetan udalak egindako urratsen berri eman zuten, herritarren iritzi eta esanak jaso zituzten eta, besteak beste, horiek Batzar Nagusiko agerraldira eramateko konpromisoa hartu zuen.

**2026ko martxoaren 6an**, Astigarragako alkateak agerraldia egin zuen Batzar Nagusietan, gaia luze eta zabal azaldu eta eskari zehatzak eginez (Udalaren webgunean eskura dago hitzaldia osorik, eta batzar nagusien webgunean agerraldiaren bideoa).

Gertakarien ildo horrek erakusten du Astigarragako Udalak urte asko daramatzala autobus zerbitzua hobetzeko proposamenak egiten eta ekimenak bideratzen eta urte luzez, duela hilabete batzuk arte, ez duela Aldundiaren aldetik gai horiei buruzko erantzun idatzi, argi eta landurik jaso. Halaber, ibilbide horrek erakusten du ez dela lankidetzarako jarrerarik izan urte luzez eta azken hilabeteotan ere informazio truke soila izan dela gertatu dena. Lankidetzarako jarrerarik ezaren erakusgarri argiena izan da bi udalek (Donostiak eta Astigarragak) lantalde tekniko bat eratu eta dBus-en 35. linea luzatzeko alternatiba sakon aztertzeke proposamenari uko egin izana.

Horrez gain, Astigarragako Udalak mugikortasun jasangarriarekin eta irisgarritasunarekin duen konpromisoa argia da eta horren lekuko dira azken urteotan egin dituen esku-hartze eta azpiegiturak, hala nola: Mugikortasun Jasangarrirako Plana (landu eta onartu, 2020-2021), Donostia ibilbideko bidegorria (2022-23), irisgarritasuna hobetzeko azpiegitura garantzitsuak diren Arrobitxuloko eta Apeztegiko igogailuak (2023 eta 2025), Pelotari kaleko eta Kale Nagusiko bidegorriak (2025-2026), hiri barruko autobus zerbitzuaren proiektuaren lanketa (2022-2023) eta proiektuaren berrikuspena eta gauzatzea (2026).

# ehbildu

## Mozioa

Horrenbestez, aurrekari horiek guztiak aintzat hartuta, Astigarragako Udaleko Osoko Bilkurak hurrengo adierazi eta eskatzen du:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio BU12 eta BU13 lineak indartzeko modu iraunkorrean, eta horretarako behar diren baliabideak gehitzeko: autobus arruntak, autobus artikulatuak, autobusak Oialumetik irtetea eta abar.
- Herritarrak sarri geltokian geratzen direnez, arazo hori konpontzeko plangintza zehatza egin eta Astigarragako Udalarekin eta herritarrekin partekatzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Astigarragako lineen erabilpenari buruzko txosten xehatuak egiteko eta Astigarragako Udalarekin eta herritarrekin partekatzeko, honako datuak zehaztuz: zerbitzu bakoitzaren betetze-maila, geltokian geratutako pertsonen erregistro zehatza, ordutegiaren betetze-maila eta bestelako gorabeherak (trafikoari buruzkoak eta abar).
- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio ospitale eta unibertsitateko linea abian jartzea orduerdiroko maiztasunarekin astegunez eta odubeteko maiztasunarekin asteburuetan, Astigarragako lau geltokietara iritsiz.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio gutxieneko kalitatea ziurtatzeko, hala nola: ordutegiak betetzea, lekua edukitzeko ziurtasuna eta gutxieneko erosotasuna pertsona profil batzuentzat (adinekoak, besoetako haur txikiekin dabilzanak...
- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, urte luzez ez entzunarena egin ondoren, aurrez aurreko eta ahozko komunikazioak indartu eta gehitu diren moduan, autobus zerbitzuaren inguruko komunikazioak (linea berriei, errefortzuei eta gainerako gorabeherari buruzkoak) idatziz helarazteko Astigarragako Udalari.
- Astigarragako Udalak berretsi egiten du mugikortasun jasangarriarekin eta irisgarritasunarekin duen konpromisoa, urtez urte hainbat egitasmotan gauzatzen ari dena, eta berretsi egiten du, halaber, 2026ko ekitaldia amaitu aurretik hiri barruko autobus zerbitzua abian jartzeko konpromisoa.